

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
		Azken datua	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
- Guztira, 21.302 langabe erregistratu dira martxoan. Lehenengo hiruhilekoko BAIren arabera, Bilboko langabezia-tasa % 10,04 da. - Saltoki handiei eta elikagaien kateei dagokienez, martxoko salmentek urte arteko $-$% 1,3ko beherakada nominala izan dute. - Bilboko jarduera turistikoak gora egin du martxoan, urte arteko terminoetan, bai ostatu-gauetan (% 29,0), bai bidaiari-kopuruan (% 27,8). 228 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira Bilbon, eta horrek 2022ko lehenengo hiruhilekoan baino % 5,6 gehiago izatea eragin du. Desegiteek $-$ % 27,0 egin dute behera. - Bilboko aireportuak martxoan 431.540 bidaiari erregistratu ditu, duela urtebete baino 136.708 gehiago. - Bilboko Portuak urte arteko % 4,8ko gorakada izan du.	Lan-merkatua			
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.302	-1,6*	Mar.
	Langabezia-tasa (BAI)	10,04	1,44	23ko 1. HH
	Erregistratutako kontratuak	10.860	-20,5	Mar.
	Merkataritza			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea= oinarria 100)	113,6	-1,3	Mar.
	Turismoa			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	83.248	27,8	Mar.
	Ostatu-gauak (kop.)	153.473	29,0	Mar.
	Ekonomia eta enpresa			
	Sortutako merkataritza-sozietateak	228	5,6	23ko 1. HH
	Desegindako merkataritza-sozietateak	103	-27,0	23ko 1. HH
	Garraioa			
	Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	431.540	46,4	Mar.
	Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	2,89	4,8	Mar.

DATU BAT

% 10,04

Langabezia-tasa BAI

[datuak 2023ko apirilaren 31n]

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Martxoan 353 langabe gutxiago erregistratu dira; horrek esan nahi du hilabete arteko $-1,6\%$ ko murrizketa izan dela, eta 21.302 langabe daudela udalerrian.

Emakumeen langabezia jaitsi egin da ($-1,8\%$): 221 langabe gutxiago. Gizonak ere behera egin du ($-1,4\%$, 132 gutxiago).

Langabeziak behera egin du aintzat hartutako adin-segmentu guztietan, eta 25 eta 44 urte arteko tartean izan da beherakada hori mesedegarrien, 206 langabe gutxiagorekin. Behera egin du 45 urtetik gorakoentzat (-117), eta 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean izan du murrizketarik txikiena (-30).

Jarduera-sektoreen arabera, industrian ($-3,1\%$), zerbitzuetan ($-2,3\%$) eta lehen sektorean egin du behera langabeziak ($-1,8\%$). Hazi egin da eraikuntzan ($1,0\%$) eta lehen enplegua bilatzen duten pertsonen artean ($1,4\%$). Datu absolutuetan, hilabete arteko beherakadarik handiena zerbitzuetan izan da (-355).

Benchmarkina Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5), langabeziaren bilakaerak $-0,4\%$ ko beherakada izan du aurreko hileko datuen aldean. Taldeko hiriburuen joera ez da parekoa izan. Madrilen eta Bartzelonan gora egin dute langabeen kopuruek, eta Valentzian, Sevillan eta Zaragozan, berriz, behera.

Euskal hiriburuen taldean (G-3) langabeziak $-2,6\%$ egin du behera. Langabeziak behera egin du Donostian ($-4,9\%$), Gasteizen ($-3,1\%$) eta Iruñean ($-0,4\%$).

Langabeziak behera egin du EAEn ($-2,8\%$) eta hiru lurraldeetan: $-4,1\%$ Gipuzkoan, $-2,5\%$ Bizkaian eta $-1,5\%$ Araban.

Afiliatuak

Dokumentu hau idazteko unean, Gizarte Segurantzak ez ditu martxoko datuak argitaratuta eduki.

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Martxo	21.302 pertsona
	% 1,6 ▼
Emakumeak	% 1,8 ▼
Gizonak	% 1,4 ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 1,6 ▼
G-5	% 0,4 ▼
G-3	% 2,6 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Kontratuak

Martxoan 10.860 kontratu sinatu ziren Bilbon; hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 2.807 kontratu gutxiago sinatu dira, $-20,5\%$ aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. (Aintzat hartu beharra dago 2022ko martxoarekin alderatu dela, hau da, Lan-erreformarako premiazko neurrien 32/2021 Errege Lege-dekretua aplikatu aurretik).

Behera egin dute gizon eta emakumeei egindako kontratuak, eta 1.096 eta 1.711 gutxiago daude, hurrenez hurren, 2022ko martxoarekin alderatuta.

Adin-tarteen arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokie erregistratutako kontratuen $\% 50,8$ (5.516 kontratu); $\% 29,9$, berriz, 45 urtetik gorakoei (3.242), eta gainerako $\% 19,4$ 25 urtetik beherakoei (2.102).

Lehen sektorean izan ezik (+1), kontratuak behera egin dute sektore guztietan: zerbitzuak (2.667 kontratu gutxiago), industria (125 gutxiago) eta eraikuntza (16 gutxiago). Zerbitzuei buruzko datu absolutuetan, nabarmenezkoa da osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jardueren kontratuen beherakada (977 gutxiago), bai eta garraioan eta biltegiatzean, ostalaritzan, administrazio-jardueretan zein jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan izan diren kontratuen beherakadak ere (607, 351, 292 eta 202 gutxiago, hurrenez hurren). Kontratuak gora egin dute, besteak beste, informazioaren eta komunikazioaren adarretan (330 gehiago).

Kontratazio-esparru berria gorabehera, $-3,9\%$ egin dute behera kontratu mugagabeak. Aldi baterako kontratuak guztien $\% 70,2$ izan dira. Martxoan 7.897 pertsona kontratatu dira, eta $\% 55,1$ emakumeak izan dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,38 kontratu.

Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

Lehen hiruhilekoko BAI beherakada nabarmena egon da Bilbon, eta 7.900 enplegu galdu ditu. Langabeziak emakumeen kasuan baino ez du gora egin.

Hiruhileko honetan, 12.500 pertsona gehiago daude langabezian.

Lehen hiruhilekoan $-5,3\%$ egin du behera Bilboko biztanleria landunak, eta beherakada handiagoa izan du emakumeen artean (4.400 gutxiago) gizonen artean baino (3.500).

Industrian izan ezik, 900 landun gehiago baititu, sektore guztietan egin du behera jarduerak hiribilduan. Behera egin du zerbitzuetan (-7.400), nekazaritzan (-800) eta eraikuntzan (-600).

Hirian bizi direnen enplegu-tasa $\% 49,37$ da: $\% 43,26$ emakumeena eta $\% 55,97$ gizonena.

Erregistratutako kontratuak

Urte arteko Δ

Martxoan	10.860 pertsona
	$\% 20,5 \blacktriangledown$
Emakumeak	$\% 21,8 \blacktriangledown$
Gizonak	$\% 18,8 \blacktriangledown$

Biztanle landunei egindako inkesta BAI – I. hiruhilekoa

Δ Hiruhileko artekoa

Langabezia-tasa	$\% 10,04$
	1,44 pp $\blacktriangle$
Emakumeak	2,70 pp $\blacktriangle$
Gizonak	0,40 pp $\blacktriangle$
Biztanleria aktiboa	$\% 3,8 \blacktriangledown$
Biztanleria landuna	$\% 5,3 \blacktriangledown$
Biztanleria langabetua	$\% 12,1 \blacktriangle$

Gora egin du biztanle langabeen kopuruak, eta 2022. urtearen amaieran 14,1 mila izatetik, 15,8 mila izatera iritsi da 2023ko lehenengo hiruhilekoan.

Langabeziak emakumeen artean baino ez du gora egin (1.800 langabe gehiago); izan ere, gizonen arteko langabeziak berdin jarraitzen du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Udalerriko langabezia-tasak % 10,04 egin du gora lehen hiruhilekoan.

MERKATARITZA

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak urte arteko -% 1,3 jaitsi dira martxoan, lan-egutegiko termino homogeneotan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 1,6 jaitsi dira salmentak.

Elikagaien salmentek -% 5,2 egin dute behera 2022ko martxoarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak % 5,5 igo dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 5,2ko gorakada izan du, eta horrela jarraian zortzi hilabete baino gehiagotan izan ditu gorakadak.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban (-% 5,7) eta Gipuzkoan (-% 3,4). EAEn, orokorrean, -% 2,6 egin dute behera.

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduek 153.473 gaualdi erregistratu dituzte martxoan. Aurreko urteko hil berean baino 34.527 gehiago zenbatu dira (% 29,0).

Bidaia-erren sarrerak ere antzera egin du gora (% 27,8). Estatuko bidaia-erren kopuruak gora egin du, baita atzeritarrenak ere.

Hiribilduko hoteletan ostatu hartu duten bidaia-erren guztien % 62,3 estatukoak izan dira, eta % 21,6ko gorakada izan dute. Atzeritarrek % 39,7 egin dute gora 2022ko martxoari dagokionez.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaia-erren dagokionez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 24,5), gero EAEkoak (% 15,2), Kataluniakoak (% 12,3) eta Andaluziakoak (% 10,3). Atzerriko bidaia-erren dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: Frantzia (% 14,4), Alemania (% 11,5), Erresuma Batua (% 9,1) eta AEB (% 8,0).

Batez besteko egonaldia 1,84 ostatu-gau izan da bidaia-erren bakoitzeko.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte arteko Δ

Martxoa	113,6
Salmenta-indizea	% 1,3 ▼
- Elikadura	% 5,2 ▼
- Gainerako produktak	% 5,5 ▲
Landunak	% 5,2 ▲

Hotel-gauak

Urte arteko Δ

Martxoa	153.473 ostatu-gau
	% 29,0 ▲
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 26,2 ▲
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 39,0 ▲

Bidaia-erren sarrera

Urte arteko Δ

Martxoa	83.248 sarrera
	% 27,8 ▲
Nazionalak	% 21,6 ▲
Atzeritarrek	% 39,7 ▲

Batez besteko egonaldia

Urte arteko Δ

Martxoa	1,84 ostatu-gau/bidaia-erren
	% 0,5 ▲

Sektorearen errentagarritasun adierazleak

Urte arteko Δ

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 18,9 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 46,3 ▲

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 57,5 eurokoak dira, % 46,3 gehiago urte artean.

Metatutako datuari dagokionez, urtariletik martxora 408.129 ostatu-gau lortu dira Bilbon; hau da, aurreko epe berean baino % 44,7 gehiago izan dira, 126.135 ostatu-gau gehiago, alegia.

Benchmarkinga. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 21,9 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 22,1), Donostian (% 28,8) eta Iruñean (% 5,4).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 18,1eko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Sevillan egon da gorakadarik altuena (% 21,0).

Benchmarkinga

Urte arteko Δ

Bilbo	% 29,0 ▲
G-5	% 18,1 ▲
G-3	% 21,9 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

ENPRESAK

Merkataritza-sozietateak

2023ko lehenengo hiruhilekoan Bilbon 228 merkataritza-sozietate berri eratu dira. Horrek % 5,6ko gorakada dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean (datu absolutuetan 12 sozietate gehiago).

Sektoreka, zerbitzuetan 178 sozietate sortu dira, hau da, aurreko urteko datu berberak errepikatu dira; industrian 30 sortu dira eta eraikuntzan 20 (hurrenez hurren, 16 eta 3 gutxiago).

Lehenengo hiruhilekoan 103, 38 sozietate desegin ziren, aurreko hiruhilekoan baino gutxiago. % 84,5 zerbitzuen sektorekoak dira, % 10,7 eraikuntzakoak eta % 4,8 industriakoak.

Merkataritza-sozietateak

Urte arteko Δ

I. hiruhilekoa

Sortutakoak	228 sozietate
	% 5,6 ▲
Deseginda	103 sozietate
	% 27,0 ▼

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 431.540 bidaiari erregistratu ditu martxoan; beraz, urte arteko % 46,4ko igoera izan du (aurreko urteko hilabete berean baino 136.781 bidaiari gehiago). 2019ko martxoari dagokionez, -2,3 jaitsi da bidaiarien kopurua.

Igo egin dira estatuko hegaldietan izandako bidaiariak (45.916 gehiago urte artean, % 35,3), eta indartsuago nazioartekoetan (% 74,6 hazi dira, eta 36.969 bidaiari gehiago egon dira).

Aireko garraioa

Urte arteko Δ

Martxoa	431.540 bidaiari
	% 46,4 ▲
Nazionalak	% 35,3 ▲
Nazioartekoak	% 74,6 ▲
Salgaiak (kg)	% 3,3 ▲
Hegaldiak	% 26,7 ▲

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 3.676 izan dira (% 26,7), baina garraiatutako merkantziak igo dira (% 3,3).

Aurten, dagoeneko 1.120.048 bidaiari lortu dira Bilbon; hau da, aurreko urteko epe berean baino % 62,2 gehiago izan dira, 429.480 bidaiari gehiago, alegia. 2019. urteko kopuruetatik oso gertu daude zenbakiak.

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 35,3ko igoera kontabilizatu da. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoa begira, % 32,7 handitu da. Hiru aireportuetan gorakadak egon dira bidaiarien kopuruan.

Benchmarkina

Δ Urte artekoa

Bilbo	% 46,4 ▲
G-5	% 35,3 ▲
G-3	% 32,7 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 2,9 milioi tonako trafikoa izan du martxoan, hau da, % 4,8 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan martxoan kudeatutako salgaien % 62,4 izan da, eta urte arteko % 1,1eko igoera izan du. Solteko gaien trafikoa % 81,8 egin zuen gora (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrek % 8.

Bidaiarien itsas garraioan, 3.883 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Martxoan ez da itsas bidaiei lotutako jarduerarik erregistratu.

Urteko metatutako datuari dagokionez, martxoan 7,7 milioi tona lortu dira portuko trafikoa, aurreko urteko epe berean baino % 4,5 gehiago.

Itsas garraioa Martxoan

Δ Urte artekoa

Portuko trafikoa	2,89 milioi tona
	% 4,8 ▲
Bidaiarien garraioa	3.883 bidaiari
	% 21,6 ▲
Itsas bidaiariak (kop.)	0 itsas bidaiari
	% 0 =

ADIERAZLEEN TAULA

	Azken datua	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.302	-1,6*	2023ko mar.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	185.391	0,5*	2023ko ots.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	10.860	-20,5	2023ko mar.
Biztanleria aktiboa (milakotan)	157,5	-3,8*	2023ko I. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	141,7	-5,3*	2023ko I. HH
Langabeak (milakotan)	15,8	12,1*	2023ko I. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	10,04	1,44* P.P.	2023ko I. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	111,1	0,6*	2023ko mar.
Afiliatutako pertsonak**	19.154	-0,1*	2023ko ots.
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	120,2	2,8	2022ko IV. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	113,6	-1,3	2023ko mar.
Turismoa			
Bidaarien sarrera	83.248	27,8	2023ko mar.
Ostatu-gauak	153.473	29,0	2023ko mar.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiaia)	1,84	0,5	2023ko mar.
Hoteletako okupazio-maila (%)	49,7	8,3 pp	2023ko mar.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako, (€)	57,5	46,3	2023ko mar.
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BGPd	113,5	3,0	2022ko IV. HH
Industria produkzioa (indizea)***	113,4	-0,9	2023ko ots.
Merkataritza-sozietate berriak	228	5,6	2023ko I. HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	118,3	5,9	2022ko IV. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	4871,95	47,4	2022ko IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	2815,91	-3,8	2022ko IV. HH
Garraioa			
Bidaariak aire bidezko garraioa	431.540	46,4	2023ko mar.
Hegaldiak	3676	26,7	2023ko mar.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,89	4,8	2023ko mar.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENaren, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Biztanleria aktiboari buruzko inkesta




Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan




Merkataritza-sozietate berriak



Aireportuko bidaiariak



Hotel-gauak



Portuko garraioa

